

IRUNGO EMAKUMEAK PLAZARA

JULIA IRURETAGOIENA SELLES

Irun 1886 - Mexixko hiria 1954



JULIA IRURETAGOIENA

Nor da:

Julia Iruretagoienak oso bizitza intentsoa izan zuen. Sozialista amorratua, irakaslea, exilioak markatua... Exiliatuei emandako laguntza antolatzeagatik nabarmendu zen. Leon Iruretagoiena zuen aita, eta Maria Selles hendaiarra, ama. Oso familia errepublikazalea zen. Aita, Errepublika iritsi baino lehen, Irungo alkate errepublikazalea izan zen.

Julia, gaztetandik politikoki konpromettua, Donibane Garazim ezagutu zuen bere senarra izango zen Tomas Meabe. Meabe bizkaitarra zen, baina jazarpen politikoa zela eta, mugaren beste aldera jo behar izan zuen exiliora. Biek bizi gorabeheratsua eta zailtasunez beteak eduki zuten, ezkutuan eta ihesean beti. 1912an seme bat eduki zuten, León. Tomás baina tuberkulosiak jota hil egin zen.

Tomas hil ondoren hasi zen, hala ere, Juliaren benetako abentura. Hasiera batean familiarekin Irunera itzuli bazen ere, azkar joan zen berriz ere Julia Madrilerara. Agrupazio Sozialistan afiliatu eta Emakume Ikasleen Erresidentziako zuzendaritza taldean hasi zen lanean.

Julia gogoz borrokatu zen emakumeek ikasteko eskubidea izan zezaten, eta hainbat mugimendutan ibili zen: Maria de Maeztu zirkuluan lehenengo, eta feminismoaren sehaska izan zen Lyceum clubean, ondoren Juliak lagun min bat izan zuen: Victoria Kent. Kent Espainiako estatuan Unibertsitatera sartu zen lehen emakumea izan zen, eta, horrez gain, auzitegi militar baten aurrean abokatu lanak egin zituen munduko lehen emakumea ere bai. Emakumeek bozkatzeko eskubidea ez zutenean ere, ordezkari politikoa izatea lortu zuen. Kent eta Iruretagoiena garaiko pentsaerarako oso aurreratuak ziren. Bikote izan zirela ere uste da.

Bizitza ez zen samurra izan Juliarekin. Bere seme Leon, 1936ko gerran lehegaien laborategi baten arduradun zela hil egin zen. Atsekabeturik, Julia familia eta Kentekin Parisera joan zen eta han bizi izan zuten 1936ko gerra. Urte batzuk geroago, Bigarren Mundu Gerra zela eta, berriz egin behar izan zuen ihesi, lehenik New Yorkera eta handik Mexikora. Bertan, Estatu espainolek ihesi joandako errepublikar exiliatuei laguntzen buru belarri aritu zen 1954. urtean hil zen arte.

Non topatu dezakezu:

[Paseo interaktiboak](#)

[Irungo emakumeak plazara dokumentala](#)

Parean elkarte eta Gipuzkoako Foru aldundia

